

EUSKAL AEKO BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREN INKESTA (BTI)-2009


10 enplegatu edo gehiagoko euskal enpresen %29,8k berrikuntza teknologikoa egin zuen 2009an

Berrikuntza ez-teknologikoa ere kontuan hartuta, %38,9 da portzentajea

2009an, berrikuntza teknologikoa egindako Euskal AEko enpresak: portzentajea %14,5 izan zen; %29,8 bederatzi enplegatu baino gehiagokoentzat, Eustaten datuen arabera. 2009. urtean zehar, Euskal AEko enpresek 2.753,4 milioi euroko gastua egin zuten teknologia berritzeko jardueretan; %1,02 gutxiago aurreko urtearen aldean. BPGren %4,1 da gastu hori.

Berrikuntzarako behar diren jarduera garrantzitsuenen artean banatuz gero, honako hauek nabarmentzen dira: barruko I+G (%46,5); makinak eta ekipak erosteko gastua (%28,6); kanpoko I+Gren erosketa %13,2. Gainerako jardueretarako %11,7 geratzen da.

1. grafikoa: Berrikuntza gastuaren banaketa jardueren arabera. 2009 urtea. (%)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

2007-2009 aldian berrikuntza teknologikoan aritutako enpresa-kopurua jaitsi egin zen, %14,5 Euskal AEn, aurreko urtean baino puntu erdia gutxiago, 27.802 enpresa gutxiago. Enpresa berritzaileztat hartzen dira merkatuan produktu berriren bat

(ondasuna edo zerbitzua) edo asko hobetutako produkturen bat sartu dutenak (%5,9 2009an), edota establezimenduaren baitan prozesu berriren bat edo asko hobetutako prozesua sartu dutenak (%12,8).

1. taula: Berrikuntza teknologikoa egindako enpresak eta gastua aldiaren arabera

Unitatea: milioi eurotan eta enpresen %tan

	2001-2003	2002-2004	2003-2005	2004-2006	2005-2007	2006-2008	2007-2009
Euskal AE	16,5	16,8	16,9	16,6	16,1	15,0	14,5
Lurralde historikoa							
Araba	12,8	13,6	15,1	15,7	15,9	13,7	12,9
Bizkaia	16,0	17,5	17,6	17,1	16,7	15,5	16,3
Gipuzkoa	18,7	17,0	16,5	16,3	15,1	14,7	12,6
Berrikuntzako gastua	1.836,0	2.010,2	2.161,7	2.352,2	2.609,9	2.782,0	2.753,4
10 langile edo gehiago	32,1	31,9	33,3	32,7	32,0	31,5	29,8
Lurralde historikoa							
Araba	29,7	31,9	33,8	34,3	30,1	29,9	30,4
Bizkaia	30,9	30,1	32,4	30,5	29,9	29,4	27,9
Gipuzkoa	35,1	34,6	34,3	35,3	36,2	35,4	32,2
Berrikuntzako gastua	1.472,6	1.463,6	1.677,8	1.829,7	2.030,0	2.193,9	2.219,9

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Ehuneko horiek %29,8raino iristen dira, 10 langile edo gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuta. Enpresa horien artean, produktua eraberritu dutenak %16,0 izan dira, eta prozesua eraberritu dutenak %24,9.

Enpresa berritzaileen %34,4k finantzaketa publikoa jasotzen du.

Enpresa berritzaileen %34,4k nolabaiteko finantza-laguntza publikoa jasotzen du. Laguntza horren jatorriari behatuz gero, Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da, laguntza guztien %27,5ekin. 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan, %49,2k laguntzak jasotzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritza da, halaber, enpresarik gehien finantzatzeko duena. Zehazki, enpresen %36,3.

2. taula: Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileak, finantzazioaren jatorriaren arabera 2007-2009. (%)

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoajasozen dute hauetatik	34,4	49,2
Tokiko administrazioak	5,2	6,4
Foru aldundiak	8,3	13,6
Eusko Jaurlaritza	27,5	36,3
Administrazio zentrala	10,8	18,9
Europar Batasuna	5,1	8,3

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

I+Gko eta berrikuntza jardueren gaineko lankidetzaz, establezimendu berritzaileen %8,9k hitzarmenen bat sinatu du enpresa edo erakundeekin 2007-2009 aldian. Ehuneko hori %24,6 da 10 enplegatu baino gehiagoko establezimenduetan.

Tamaina horretako establezimenduetan, lankidetzak honako hauekin gertatu da: Zentro teknologikoekin (%51,7); Ekipoen, materialaren eta abarren hornitzaileekin (%42,9); Enpresa bereko beste establezimendu batzuekin (%38,4); Aditu eta aholkularitzekin (%34,7), eta Unibertsitate nahiz beste institutu batzuekin (%34,1).

Faktore jakin batzuek teknologia-berrikuntza oztopatzen dutela uste du enpresen erdiak baino gehiagok

Era berean, enpresen erdia pasak, %55,5ek hain zuzen ere, uste du teknologia-berrikuntza zailtzen duten faktoreak badirela. Faktore horien artean, berrikuntzen kostu handiegia (%41,5), gehiegizko arrisku ekonomikoak (%40,3) eta finantza-iturri falta (%38,2) nabarmentzen dituzte enpresek. 10 enplegatu baino gehiagoko enpresetan, berrikuntza oztopatzen duten faktoreak badirela uste dutenak %64,7 dira, aipatutako oztopoak berberak direlarik.

3. taula: Enpresak, berrikuntzari traba egiten dioten faktoreen arabera. 2006-2008.(%)

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Berrikuntzari traba egiten dioten faktoreak daude	55,5	64,7
Faktore ekonomikoak:	48,9	57,6
.- Gehiegizko arrisku ekonomikoak	40,3	45,2
.- Berrikuntzako kostu handiak	41,5	51,1
.- Finantzaketa-iturririk ez	38,2	42,2
Barruko faktoreak:	33,9	43,9
.- Erakundearen zorrotasunak	17,4	23,1
.- Langile gaiturik ez	20,8	24,1
.- Teknologiari buruzko informaziorik ez	21,8	23,5
.- Merkatuei buruzko informaziorik ez	18,3	22,4
Beste faktore batzuk:	33,0	34,9
.- Arauek malgutasun urria dute	21,8	22,9
.- Bezeroek sentikortasunik ez	26,6	25,5

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

10 enplegatu baino gehiagoko enpresa berritzaileen %28,8k patenteren bat edo bestelako babes-metodoren bat erabili du asmazio edo berrikuntzetarako.

2007-2009 aldian, aipatzekoa da 10 enplegatu baino gehiagoko enpresa berritzaileen %28,8k patenteren bat edo bestelako babes-metodoren bat erabili duela asmazioak

edo berrikuntzak babesteko. Aldi horretan, enpresen %13,4k eskatu zuen patenteren bat bere establezimenduetan egindako asmakuntza edo berrikuntza babesteko, eta enpresen %13,5ek patenteren bat zuen indarrean 2009. urtearen amaieran. Bestelako babes-metodoen gainean, 10 enplegatu baino gehiagoko enpresa berritzaileen %24,3k erabili du baten bat aipatu aldian. Metodo horien artean aipatzekoak dira modeloen erregistroa, fabrika-markak, egile eskubideak etab.

2007-2009 aldian Euskal AEko enpresen %38,9k berrikuntza –teknologikoa edo bestelakoa- egin zuten

Euskal AEn, kontuan hartzen bada berrikuntza ez-teknologikoa, enpresen %19,8 izan zen berritzaile –teknologian edo beste zerbaitetan- 2007/2009 aldian. Portzentaje hori honela osatzen da: berrikuntza teknologikoa (%14,5) eta ez-teknologikoa (enpresen %11,7). 10 enplegatu eta gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuz, enpresa berritzaileak %38,9 dira (berrikuntza teknologikoa edo ez-teknologikoa).

Berrikuntza ez-teknologikoa antolaketa- edo merkaturatze-berrikuntzek osatzen dute.

Antolaketa-berrikuntza enpresa barruan antolatze-metodo berriak ezartzea da enpresako barne-funtzionamenduan; euskal enpresen %9,2k egiten dute. **Merkaturatzearena** lehen erabili ez diren edo aurrekoak bezalakoak ez diren merkataritzako estrategia edo kontzeptuen egikaritzea da; Erkidegoko enpresen %6,5ek egiten dute.

4. taula: Enpresak berrikuntza motaren eta tamainaren arabera. 2007-2009

Unitatea: establezimenduen ehunekoa

Euskal AE	Berrikuntza ez-teknologiko mota		Establezimendu berritzaile ez-teknologikoak	Establezimendu berritzaile teknologikoak (1)	Establezimendu berritzaileak (1) (teknologikoak edo ez-teknologikoak)	Establezimendu berritzaile EIN (2) (teknologikoak edo ez-teknologikoak)
	antolamenduan	merkaturatzean				
Guztira	9,2	6,5	11,7	14,5	19,8	20,2
10 enplegatu eta gehiago	23,0	11,6	26,3	29,8	38,9	40,2

(1) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako establezimenduak ez daude barne.

(2) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako establezimenduak barne daude.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

10 enplegatu eta gehiagoko enpresei dagokienez -beste estatistika-erakundeekin (INE, EUROSTAT, e.a.) erkatzeko moduko tamaina- edonolako berrikuntza egiten dutenak %38,9 dira aldi horretan.

Kopuru hori (%38,9) horrela osatzen da: berrikuntza teknologikoa enpresen %29,8ek, ez-teknologikoa %26,3k.

Berrikuntza ez-teknologikoa, enpresa-tamaina horretarako, antolamenduan datza %23an eta merkaturatzean %11,6an.

Aribideko edo huts egindako berrikuntza duten enpresak ere kontuan hartuz (EIN izenekoak), 10 enplegatu eta gehiagoko enpresa berritzaileak %40,2 dira.

Ohar metodologikoa: Berrikuntza Teknologikoko Inkesta BTI 2009k **barne du 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazional berria (JESN-2009)**

[JESN-93 eta JESN-2009 Jarduera sailkapenak](#)

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

Tel:+34-945-01 75 96 Faxe:+34-945-01 75 01

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Datu-bankua